

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako 15 ikastetxe publikok kalitateari sariak jaso dituzte Hezkuntza departamentuaren eskutik

Maria Solana kontseilariak sare publikoko ikastetxeen %52ak kalitatezko sareetan parte hartzen dutela azaldu du eta D ereduko 7 ikastetxerekin osatutako sare berria nabarmendu du

Asteazkena, 2018.eko abenduak 12

Hezkuntza

Departamentuak, Maria Solana kontseilariaren eskutik, Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan egindako ekitaldian, “Kalitatearen konpromisoa”, “Kalitatezko Zentroa” eta “Zentroen Bikaintasuna” sariak eman dizkie Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoei. Oraingoan kalitatea hobetzeko 15 ikastetxe publikok egindako lana goraiatu da, nabarmentzekoa da gainera Kadinet sarearen baitan D eredua eskaintzen duten 7 ikastetxerekin sortutako sare berria.



Maria Solana kontseilaria eta Roberto Pérez zuzendari nagusia saritutako ikastetxeetako ordezkariekin.

Hiru kategorietan banatuta saria jaso duten ikastetxe publikoak honakoak izan dira: “Kalitatearekin Konpromisoa” jaso dute, Arguedaseko Sancho Ramírez HLHIP, Artaxoako Urraca Reina HLHIP, Caparrosoko Virgen del Soto HLHIP, Lizarrako Tierra Estella BHI, Lekunberriko Ibarberri HLHIP, Iruñeko Elorri HLHIP, Zubiriko Gloria Larrainzar Eugi HLHIP ikastetxeek; “Kalitatezko Zentroa” ziurtagiria Irunberriko LHI-LH institutuak jaso du.

Gainera, “Zentroen Bikaintasuna” saria jaso dute Azagrako Reyno de Navarra DBHI, Burlatako IB-LH, Cintruénigoko Otero de Navascués HLHIP, Lizarrako LHI, Noaineko Elortzibar DBHI, Iruñeko María Ana Sanz IB eta San Adrianeko Alfonso X El Sabio HLHIP ikastetxeek.

Sari banaketa ekitaldian ikastetxeetako zuzendaritza taldeetako ordezkariekin batera izan dira Nafarroako Eskola Kontseiluko eta Parlamentuko ordezkariak.

Maria Solana kontseilariak sareen kordinatzaile lanetan ari direnei, kalitate arduradunei, zuzendaritza taldeei, klaustroei eta, oro har, “Nafarroako hezkuntza hobetzeko egunero lanean ari diren guztiei egindako erabateko ahalegina eta ikastetxeen gestio sistemak aldatu eta hala emaitza hobekak lortzeko emandako bultzadari”, eskerrak eman dizkie.

“Niretzat ohore handia da ikastetxe publikoaren kalitatea eta bikaintasuna nabarmentzen duen ekitaldi honen buru izatea”, gehitu du.

KADINET sareak 20 urte

Solana kontseilariak Kalitate-Sareak, KADINET, sortu zirenetik aurtan 20 urte bete direla gogorazi du, “ikastetxeen kudeaketa hobetu eta zuzendaritza taldeen lidergotza bultzatzeko sei zuzendarik egindako lanari esker abiatu zen proiektua da”, azaldu du Solanak. Sare honen bitartez 30 tresna digital sortu dira euskaraz zein gaztelaniaz eta ikastetxeen banakako atentzioa eskaintzen da.

Egun Nafarroako ikastetxe publikoen 125 ikastetxek, %52ak parte hartzen dute kalitatezko 18 sare ezberdinetan, “gehituz doan zifra da eta etorkizun hurbilean %100era heltzeko asmoa dugu”, gehitu du Solanak. Azkenik, aurtengo ikasturtean euskarazko kalitatezko sarera zazpi ikastetxe gehitu direla gogorarazi du. Ikastetxeok honakoak dira: Agoitzeko HLHIP-DBHI, Barañaingo Alaitz HLHIP, Iruñeko Hegoalde Ikastola HLHIP, Iñaki Ochoa de Olza DBHI, Iparralde DBHI, Sarrigurengo II Joakin Lizarraga HLHIP eta Uharte Arakileko San Miquel HLHIP.